

LAZKAO / Juan Joxe Agirre beneditarrak Euskal PEN Klubaren Luma jaso du, bere lan isilagatik

LAZKAO. DV. Atzo arratsean, Lazkaoko udaletxeko Pleno Aretoan burututako ekintza xume bezain bero batean jaso zuen Juan Joxe Agirre beneditarrak, lekaime hauen artxiboko zuzendari lanagatik, Euskal PEN klubak (idazleen babes eta iritzi askatasuna zaintzen duen elkarte) eskainitako luma. Bertan izan ziren, lekaimeaz gain, Laura Mintegi idazlea PEN klubaren izenean, Udaleko euskara zinegotzi Xabier Arrasate, eta Joxepa Madariaga eta Dionisio Amundarain, Lazkaoko euskara mugimenduko kideak. Guztiek goraipatu zuten aita Juan Joxeren 30 urteetako lan ixila, eta horren bidez osatutako bilduma, munduan gutxi izango diren aldizkari, paper, kartel eta pegatina bilduma bikaina. Juan Joxek berak, bere-berea duen gisan, apalki eraman zuen bere mintzaldia eta bildutakoei eskerrak ematearekin batera, bere lanaz baliatu eta baloratzen duten guztiei bere eskerrona eta poza behin eta berriz adierazi zien. Asko direla esan zuen, bere lanetan oinarriturik eginadako doktoradutza tesiak. Hara nola batzuk aipatzearren, Gurutz Jauregi, Mari Karmen Garmendia, Letamendi Ortzi, Xabier Idoate nafarra, eta abar aipatu zituen.

Bukaerarako utzi zuen, ordea, bere bihotz kuttunean zuen maisu handi baten gomendio eta laguntza. On Joxemiel Barandiaran zenak, hil aurretik, bere lana ikusteko aukera izan zuenetako batean, horrela esan omen zion: Segi ezazu lan honetan Juan Joxe, gaur edo bihar asko baliatuko dira zuk egindako lan honetaz, etorkizunean ere gu zer izan geran ikasi eta aztertu nahi dutenentzat, altxor haundia da hau.

Bakarkako lana

1930ean Alegian jaioa, ia kasualitatez hasi zen Juan Joxe lan honetan. Izan ere, inork ez omen zuen nahi, Lazkaoko beneditarren artean, monasterioan zuten liburutegiaz arduratu eta berak hartu zuen, orduan, lan hura bere gain, nahiz eta liburu bat zer zen ere ez jakin ia. Bartzelonara joan zen 70eko hamarkadan Bibliotekonomia ikasketak egitera eta garai hartan ezagutu zuen Montserrateko monasterioan zuten artxibo zabala. Katalanismoaren zentroa zen hura eta nik pentsatu nuen. Euskal kulturaren artxiboa osatu behar dugu guk Lazkaon. Hala, monasteriora itzuli eta lanean hasi zen.

Urteotan milaka euskal kultura eta politika arloko aldizkari, egunkari, kartel, pegatina eta bestelako dokumentuak bildu ditu berak bakarrik - askotan eskale moduan aritu izan naiz-, asko frankismo garaikoak, klandestinitatean sortutakoak. Artxibo hau azken mendeko euskal historia ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bihurtu du horrela. Etorkizuneko belaunaldiak horixe zor diegula uste dut; dokumentu hauek biltzen ez badira, desagertu

egingo dira eta nola ezagutuko dute, orduan, garai honetan zer gertatzen zen?, dio.

Lan honek arazo bat baino gehiago ekarri dizkio, ordea. Duela bi urte, adibidez, itaundu egin zuten ETArekin ustezko harremana izateagatik. Beldurra izan dut, bai, zenbait unetan, baina gero norbait artxibora etorri izan denean zerbaiten bila, eta aurkitzen duenean, horrek poz handia ematen dit. Lan guztiak ahazten dira horrela.

Hitzarmen sinadura

Duela hiru hamarkada monasterioan, artxiboa hartu ahal izateko, obra egiten zutenean, ez zuten uste hura txiki geratuko zitzaienik. Baina horixe gertatu da. Hala, gaur Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lazkaoko beneditarrek lankidetza hitzarmen bat sinatuko dute beneditarren agiritegi-liburutegiaren eraikin berria egiteko.